

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Gela bat norberarena



ARITZ GALARRAGA

Baztan da lekua. Jakitunek badakite. Ramon Andres, adibidez, bertara joan zen bizitzera, Elizondora, orain bizpahiru urte; hain zuzen, Bartzelonako prezio abusuzkoetatik eskaipo, bere liburu guztientzako etxe baten bila. Eta ondo etorri zaiola dirudi, *Filosofía y consuelo de la música* argitaratu berri baitu, 1.000 orrialdetik goitiko liburutzarra. Aurretik, 80en bukaeran, Eduardo Gil Berak ere egin zuen ballerako bidea, Narbartera, Lakoizketarena zen etxetik ez sobera urrun laketzera. Gil Berak 90etatik hona izan duen emaria hemen laburtzen saiatzea zentzugabea da. Seguru Mikeltxenean ondu duela azken itzulpena, *Lamento de paz*, Erasmorena. Eta 1995ean joan zen Miguel Sanchez-Ostiz Lekarozera, bizitza lasai, ordenatuago baten bila –“*De no haberme venido a vivir aquí igual doy hasta en majareta*”–. Ondoen bizi izan den lekua omen, Baztan. Orain, Madrilen denbora bat eman eta gero, bueltan dugu berriz, Arizkungo Zamarrenean. Baztan da, definitiboki, *the place to be*.

Baztanen aurkitu dute hiru idazle horiek, eta beste asko –pintoreak etortzen zaizkit burura, Baztango eskola errepikakor horretakoak esate batera–, nolabaiteko konfort, bake, paradisu, nolabaiteko *locus amoenus* bat. Tira, halakorik oraindik aurkitzeko parada izan ez dugunoi, apalagoa izan zen Virginia Woolfen hura geratzen zaigu behintzat: gela bat norberarena. Ez da txikikeria –galde diezaiotela, bestela, 70 metro koadroko etxea beste hiru bizikiderekin partekatu behar duenari–. Eta ez da samurra: norbere gelan lasaiki egoten ez jakitetik datorke gizakiaren malura; inoiz aipatu izan dugu Pascalek esan zuena, hain da bikaina. Ildo beretik Sanchez-Ostiz, bere azken liburuan, *Breves del desconcierto* izenekoa: gure gelaren baitako bidaia abiatzean, nekez itzultzen gara atzera. Eta agian horregatik kosta egiten zaigu abiatzea. Behin abiatuta, ordea, azken geltokira heldu artekoa da. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



ADUR

“SEMEA AUSART JOKATZEKO GAI IZAN DA
ETA SISTEMAK MESPRETUXUZ TRATATU DU”

JUAN CUATRECASAS, GAZTELUETAKO SEXU ERASOEN BIKTIMAREN AITA

Leioako Gaztelueta ikastetxean sexu abusuak egin zituen irakasleari hamaika urtetik bi urtera jaitsi dio espetxe-zigorra Espainiako Auzitegi Gorenak, eta oso haserre mintzatu da biktimaren aita: “Epaia arrazoi ematen digu, semea sexu abusuen biktima dela onartzen du, baina hori ez da nahikoa; iraingarria eta onartezina da auzitegiak pentsatzea gertakarietako batzuk ez daudela nahikoa frogatuta eta mesede eskasa egiten dio sexu indarkeriaren kontrako borrokari”. Semea lur jota dagoela kontatu du, ez duela halakorik merezi. **RADIO EUSKADI (2020/09/29)**

